



Plazido Muxika

1906-2006

“Urnietarra naiz ni”

Loiolako jesulagunen etxe handian Plazido Muxikaren gela aurretik igarotzen zenak txartel hau ikusi ohi zuen atetik zintzilik: “lanpetua”. Denbora zuen guztian bere hiztegiarekin ari baitzen buru-belarri lanean. Hala ere, jangelara edo Lelizara zihoanean topo egiteko aukerarik ere izaten zen batzuetan. Inoiz baita haren gelara sartzeko egokierarik ere.

Gerra ondoan hazi ginenok 1952an argitaratu zuen *Noni eta Mani* liburua irakurtzeko aukera izan genuen. Hain zuzen, euskaraz irakurri genuen aurrenetakoa. Izan ere, orduantxe hasi ziren baimentzen euskarazko lehenengo liburuak. Bitarte horretan debekatuak eta ezkatatuak ziren euskarazko guztiak.

Esangai izan ohi zuen Plazido Muxikak. “urnietarra naiz ni”. Orian jaioa, ttikitan Herrerara bizitzera joana, Oñan, Belgikan eta Holandan ikasia, Kolonbian gazterik misiolari izana, tematurik da bere sorterriarekin. Bai hiztegiaren hitzaurrean eta bai “herri” edo “civilmente” hitzen adibideak eskaintzerakoan “herriz urnietarra naiz, eta elizaz lasartearra” idazten du. Orain 20 urte arte Oria Urnietako udalerrri izan da eta elizaz ere bai orain 100 urte arte. Hain zuzen, Plazido jaio eta bataiatu baino urtebete lehenago aldatu zen elizaz Lasartera.

Dena den, Plazido Muxikak ohore handiz aitortzen du “urnietarra naiz”. Eta bihotzondoko izugarria hartu zuen bere herriko udaletxetik. Garai haietan norberak zabaldu eta saldu behar izaten zituen euskarazko liburuak. Plazido Muxika argitaratu aurretik hasten zen nork erosiko zion galdezka. Udaletxe batzuetatik ere baiezkoa jaso zuen. Urnietakotik, ordea, ezezko borobila. Berebiziko mina hartu zuen. Egokiera zuen guztian agertu ohi zuen nahigabe hori. Bere herriak seme ospetsutzat gogoratu eta goraiapatuko zuela jakingabe hil zen, tamalez.

“Yo soy de Urnieta”

Todo aquel que pasaba por delante de la habitación de Plazido Muxika en la casa grande de los jesuitas de Loiola veía un cartel colgando de la puerta que decía “ocupado”. Y es que todo el tiempo que tenía lo dedicaba a trabajar en el diccionario. De todos modos, a veces había ocasión de toparse con él cuando acudía al comedor o a la iglesia. Incluso alguna vez conseguíamos entrar en su habitación.

Los que crecimos en la posguerra tuvimos la oportunidad de leer el libro que publicó en 1952, titulado *Noni eta Mani*. En concreto, fue uno de los primeros que leímos en euskera. Justo entonces se empezó a permitir la edición de los primeros libros en euskera. Hasta ese momento todos los libros en euskera habían estado prohibidos y ocultos.

Plazido Muxika solía decir a menudo: “yo soy de Urnieta”. Nacido en Oria, de niño fue a vivir a Herrera, estudió en Oña, Bélgica y Holanda, en su juventud fue misionero en Colombia, siempre obstinado con su localidad natal. Tanto en el prólogo al diccionario como al ofrecer los ejemplos de las palabras “herri” o “civilmente”, escribe “por ley soy de Urnieta, y por iglesia, de Lasarte”. Hasta hace 20 años Oria ha pertenecido al municipio de Urnieta, y eclesiásticamente también, hasta hace 100 años. Concretamente, el cambio de adscripción de la iglesia a Lasarte se produjo justo un año antes del nacimiento y bautizo de Plazido.

Sin embargo, Plazido Muxika lo reconoce con gran honor: “yo soy de Urnieta”. Y encajó un duro golpe del ayuntamiento de su pueblo. En aquella época el autor era el responsable también de distribuir y de vender los libros en euskera. Plazido Muxika empezaba a preguntar quién le iba a comprar sus libros antes de publicarlos. Recibió respuesta afirmativa de varios ayuntamientos. Del ayuntamiento de Urnieta, en cambio, recibió una categórica negativa. Le dolió profundamente. A la mínima ocasión manifestaba ese dolor. Desgraciadamente, murió sin saber que su pueblo lo iba a recordar y declarar como hijo predilecto.

Oria, XX. mende hasieran

Izen bereko ibaiaren ondoan zegoen paraje eder hau, Oriako auzo eder hau, eta Urnietako udalerriaren parte zen XX. mende hasieran.

Atzera eginez, 1845ean, dozena bat familia bizi zen Orián, eta urte horretantxe interesatu zen Brunet familia gure eremuan zeuden lur batzuekin; hala, lur horietako batzuk erosi zituen, bai eta han zeuden etxe batzuk ere. Fabrika handi bat eraiki zuten, ORIA - HILADOS Y TEJIDOS DE ALGODÓN izenekoa, eta hiru urte geroago, lehen oihala egin zuten. Pixkanaka-pixkanaka, fabrikaren inguruan sei etxe bloke eraiki zituzten, bai eta jauregi handi bat ere. Enpresaren lurretan eraiki zuten hori. XX. mende hasieran, ehun eta berrogeita hamar etxe zeuden, eta erroldatuta seihun eta berrogeita hamar pertsona zeuden; enpresan laurhun langile aritzen ziren. Enpresako etxebizitza bat lortzeko, gutxienez familiako batek enpresan lan egin behar zuen, eta, diru kopuru sinboliko bat ordainduta (hilean zentimo batzuk), ura eta argia ere bazeuzkaten.

Oria, comienzos del siglo XX

Situado junto al río de su mismo nombre y como parte del municipio de Urnieta, podíamos admirar a comienzos del siglo XX este bello paraje, este bello barrio de Oria.

Retrocediendo al año 1845 vemos que en Oria residía una docena de familias y fue en este año cuando la familia Brunet se interesó por terrenos que existían en nuestra zona, comprando una parte de ellos y algunas casas que había en los mismos. Construyeron una gran fábrica llamada ORIA - HILADOS Y TEJIDOS DE ALGODÓN y, tres años más tarde, elaboraron el primer tejido. Poco a poco y alrededor de la fábrica edificaron seis bloques de casas y un gran Palacio. Este dentro de los terrenos de la propia empresa. Volviendo a comienzos del siglo XX, por esas fechas se contabilizan ciento cincuenta viviendas con un censo de seiscientos cincuenta personas; la plantilla de la empresa estaba compuesta por cuatrocientos obreros. El requisito para tener derecho a una vivienda de la empresa era que trabajase, como mínimo, uno de los miembros de la familia y estaban incluidos, por medio de una cantidad simbólica (unos céntimos al mes), el agua y la luz.

Nagusiak (hala deitzen zieten Brunetarrei) oso aberatsak eta goi gizartekoak ziren. Normalean izaten zituzten gonbidatuak Donostiako eta inguruko familiak izaten ziren, markes-marquesak, konde-kondesak... eta jauregi zalgurdi ederretan joaten ziren. Festa handiak antolatzen zituzten, eta gaueko ordu txikiak arte irauten zuten. Bisita garrantzitsuak izaten zituzten, hala nola, Isabel II.a erreginarena eta haren seme Alfonsorena.

Oso bestelakoa zen langileen bizitza; gehienek hamar ordu edo gehiago egiten zuten lan (astelehenetik larunbatera). Libre gelditzen zitzairen denboran, igandeetan normalean, emakumeek arropa garbitzen zuten ibai bazterrean, hango ura aprobetxatuz. Etxe ondoan eserita, hizketaldiak izaten zituzten puntua egiten zuten bitartean edo, garai hartan ohikoa zen bezala, senarraren abizenaren lehen letra maiz, zapi eta abarretan bordatzen zuten bitartean. Gizonek denbora asko ematen zuten baratzean eta txabolari lanean, eta mendira joaten ziren adar edo zuhaitz errietako sorta bila, aste osoan janaria prestatzeko egurrik falta ez zedin. Gero, tarte librerik bazuten, futboleko edo pilotari jokatzeko zuten. Horretarako, bi pilotaleku eder zeuzka-

Los 'amos' (con este nombre se les identificaba a los Brunet) eran grandes acaudalados y pertenecían a la alta sociedad. Sus invitados asiduos eran familias de San Sebastián y sus alrededores, marqueses, condes... que acudían al Palacio en preciosas caleas tiradas por caballos. Organizaban grandes fiestas que concluían a altas horas de la noche. Recibían visitas muy importantes, por ejemplo, la de la reina Isabel II y su hijo Alfonso.

Muy diferente era la vida de los obreros; la mayoría de ellos trabajaban diez o más horas diarias (de lunes a sábado). El tiempo que quedaba libre, normalmente los domingos, las mujeres hacían la colada en la orilla del río aprovechando sus aguas. Se sentaban en tertulias al lado de la casa a hacer calceta e imprimir preciosos bordados en sábanas, pañuelos... con las iniciales de los apellidos de ambos esposos, como era costumbre en aquellos tiempos. Los hombres dedicaban buenos ratos a trabajar en las huertas y chabolas y acudían al monte a por la *sorta* de ramas o árboles caídos, para tener leña para cocinar durante la semana. Si al final disponían de un rato libre, lo dedicaban a jugar al fútbol y a la pelota. Para ello tenían dos bonitos frontones. Los medios de transporte de carga más habituales eran los

ten. Zama garraiatzeko, normalean astoak eta idiak erabiltzen zituzten, eta, zenbaitetan, baita zaldiak ere. Lehen garraioidea, tranbia, 1912an inauguratu zuten. Hainbat baserriaren dolareak zeuzkaten, eta sagardoa egiten zuten. Lehenago, sagarrak kizkiarekin biltzen zituzten; horrekin, sagarrak harrapatzen zituzten, eta gero gaztain adarrez egindako saski batzuetara botatzen zituzten. Garai latzak ziren, eta gure aitona-amonak espartinetan joaten ziren Donostiara; orduko oinetakoak ziren espartinak. Normala zen, halaber, jantziak seme-alaba zaharretatik txikietara pasatzea.

Gure aitona-amonen bizimoduari buruzko laburpen hau gure bizilagun On Plazido Muxika Berrondo aita jesuitaren oroitzapenetan egin dut. 1906ko apirilaren 16an jaio zen, Oriako Baratzalde etxean, eta historia horren zati bat ezagutu eta bizi izan zuen. Aurten, haren herriak, Urnietak, ondo merezitako omenaldia egingo dio, bera jaio zeneko ehungarren urteurrena dela eta.

Oriatar sonatuak ahal zuen guztietan esaten zuen esaldi batekin amaituko dut:

ORIAKO BARATZALDE ETXEAN JAIO NINTZEN NI.

burros, los bueyes y, en algunos casos, los caballos. El primer transporte público, el tranvía, se inauguró en 1912. En varios caseríos disponían de *tolares* (lagares) donde se elaboraba la sidra. Con anterioridad se recogía la manzana por medio de una *kiskia* (un palo que, en un extremo, llevaba un clavo curvado); con ella se hincaba la manzana que, posteriormente, era depositada en cestos elaborados con láminas de rama de castaño. Debido a las penurias de la época, nuestros aitonas acudían a San Sebastián en alpargatas; era el calzado habitual. También era normal que la vestimenta pasara de los hijos mayores a los menores.

Este breve relato sobre la vida de nuestros aitonas lo realizo en recuerdo a nuestro convecino el Padre Jesuita Don Plazido Muxika Berrondo, nacido el 16 de abril de 1906 en la casa Baratzalde de Oria, que conoció y vivió parte de esta historia y a quien su pueblo, Urnieta, le rinde un merecido homenaje al cumplirse el centenario de su nacimiento.

Termino con una frase que el destacado oriatarra repetía siempre que se le presentaba la ocasión:

YO NACÍ EN LA CASA BARATZALDE DE ORIA.

Plazido Muxika

Atarikoak

Erabaki handia

1929an, Plazido Muxika hogeita hiru urteko jesuita gaztea zen, artean meza eman gabea, eta Kolonbian zegoen. Behin, hiru mila metrotik goragoko mendietan barrena zebilela, nekeak ahuldurik, bide bazterreko enbor baten gainean eseri omen zen, zangoak pixka bat lasaitzeko. Horrela zegoela, patxadan, arnasa hartzen, paper zimur zaharkitu batzuk ikusi omen zituen ondoko beste enbortxo baten azpian, ertza ageri. Zer ote ziren? Hartu zuen paper-piloa, zabaldu zuen eta... Argia aldizkariaren orriak ziren, goitik behera euskaraz idatziak!

Urruti haietan eta horrelako leku bakartian bere herriko hizkuntza aurkitzeak zirrara handia eragin omen zion Plazido gazteari. Orriak behin eta berriro irakurri eta asmo sendo bat jaio omen zen bat-batean haren barruan. "Dei" bat bezalakoa izan omen zen: zerbait egin behar zuen bere hizkuntza maitearen alde!

Orduantxe hartu omen zuen bere bizitza guztian berebiziko eragina izango zuen erabaki handia: herrira itzultzean, euskarak hain beharrezko zuen hiztegia egingo zuen!

Muxikaren hiztegi mardula

Erabakia sendoa zen, baina Aita Muxikak ez zuen hura berehala betetzeko modurik izan. 1940-50 hamarraldiaren erdialdea arte ez zen hasi bere hiztegi handirako fitxak betetzen, atsedinari tarreak kenduz. Lanaldiak etenaldiek txandakatuz igaro zituen urte asko. Geroago, hartara jarri zuten agintariek, beste lanik gabe, eta 1965ean argitaratu zuen azkenean bere *Diccionario castellano-vasco* mardul eta bikaina, guztira 1.897 orrialde trinko zituena.

Harrezkerotik loturik geratu ziren betiko Plazido Muxika eta haren hiztegia. Beste batzuenagatik esan ohi dena esan daiteke hari buruz ere: gauza bat eta bera bilakatu zirela pertsona eta haren lana. Urte haietan, 60-70 hamarraldian, Plazido Muxika aipatzea haren hiztegi mardula gogoratzea zen eta erdaratiko hiztegiak hitz egitea Plazido Muxikaren hiztegiak hitz egitea.

Etekin polita atera zioten hiztegi hari itzultzaileek, irakasleek, idazleek eta, nola ez, ondoren etorritako hiztegi-gileek ere!

Introducción

Una gran decisión

En 1929 Plazido Muxika era un joven jesuita de veintitrés años, todavía sin haber dado misa, y estaba en Colombia. Un día, caminando por los montes de más de tres mil metros, debilitado y cansado, se sentó sobre un tronco de árbol junto al camino, para relajar las piernas. Estando así, tranquilamente, tomando un respiro, vio que asomaban debajo de otro tronco unos viejos papeles arrugados. ¿Qué sería? Cogió los papeles, los abrió y... ¡Eran unas páginas de la revista Argia, escritas todas ellas en euskera!

El hecho de encontrar en aquella tierra lejana y en un lugar tan solitario su lengua originaria le provocó una tremenda emoción al joven Plazido. Tras leer esas hojas una y otra vez nació en su interior una idea tan repentina como robusta. Debió ser como una llamada: ¡Estaba obligado a hacer algo para ayudar a su amado euskera!

Por lo visto fue en ese momento cuando tomó la gran decisión que fue el eje de toda su vida: cuando volviera a su tierra, ¡Elaboraría el diccionario que tanto necesitaba el euskera!

El voluminoso diccionario de Muxika

La decisión era firme, pero el Padre Muxika no tuvo ocasión de llevar a cabo su idea hasta pasados unos cuantos años. No fue hasta mediados de los 40 cuando comenzó a rellenar las fichas para su gran diccionario. Durante muchos años alternó épocas de trabajo con interrupciones. Más tarde sus superiores lo liberaron de toda obligación para que terminara el diccionario, y finalmente publicó en 1965 su voluminoso y excelente *Diccionario castellano-vasco*, con un total de 1.897 páginas.

Desde ese momento Plazido Muxika y su diccionario quedaron unidos para siempre. De él se puede decir que la persona y su trabajo se volvieron uno. En aquellos años 60-70, hablar de Plazido Muxika era recordar su gran diccionario, y hablar de un diccionario de castellano-euskera era hablar del diccionario de Plazido Muxika.

Los traductores, profesores, escritores y, cómo no, los lexicógrafos posteriores han sacado buen provecho de ese diccionario.



Bizitza

Herri bitako seme

Oria auzoan jaio zen 1906ko apirilaren 16an, izen bereko ibaiaren albo-alboan eta Buruntza mendiaren oinean da goen auzo txikian. Eta auzo hori Urnieta herriarena zen orduan. 1986an, ordea, Oria auzoa beste zenbait auzorekin elkartu eta Lasarte-Oria herri berria sortu zuten. Ziren bezalakoak igaro ziren auzo horiek udalerrri berrira, bere izaera guztiarekin, iragana ere barne zela.

Plazido Muxikak berak bere hiztegian honako adibidea ipini zuen, civilmente eta eclesiásticamente hitzen azalpean: "legez (...) Urnieta' rra naiz ni, eta elizaz Lasarte'arra".

Haurtzaroa eta lehen gaztaroa (1906-1922)

Aita, Antonio, goierritarra zen, Ordiziakoa, Zabale baserriko semea. Ama Dominika, berriz, Astigarrakoa, Oiarbide baserriko alaba. Ezkondu zirenean, Orian jarri ziren bizitzten, Brunet enpresaren aurreko etxeetan, Antoniok Brunetarrenean egiten baitzuen lan baratzezain. Elizatxoaren ondoko etxean bizi ziren. Etxeak Baratzalde du izena, jendeak "Etxegorri" izenaz ezagunagoa bazuen ere.

Bost seme-alaba izan zituzten —beste bi hil egin ziren jaioberritan—. Hiru mutil aurrea eta neska-mutil bi, bi-kiak, gero. Plazido zen, hain zuzen ere, biki horietako mutila; arrea ere, Engrazia, lekaime izango zen.

Haurtzaro mugitua izan zuen Plazidok, osasun kontuengatik. Ordizian amonaren etxean egon zen, Zabale baserrian; gurasoen etxera itzuli zen, Oriara, eta hamar urteko mutila zelarik, Altzara joan ziren bizitzera Muxikatarrak. Oriako Etxegorri etxetik Altzako Etxe-uridin etxera aldatu ziren.

Altzan, eskolan ibili zen hamahiru urte bete arte. Eskola uzteko garaia iritsi zenean, gurasoek eta Andoaingo Seminariora bidali zuten. 1922an, hamasei urteko gaztea zela, Azpeitiko Loiolan astebeteko gogo-jardunak egin eta jesuita sartzea erabaki zuen.

Vida

Natural de dos municipios

Nació el 16 de abril de 1906 en Oria, un pequeño barrio situado justo al lado del río del mismo nombre y al pie del monte Buruntza. Y ese barrio pertenecía al municipio de Urnieta. En 1986, sin embargo, el barrio de Oria se unió a otros barrios vecinos para formar el nuevo municipio de Lasarte-Oria. Aquellos barrios se incorporaron con toda su esencia al nuevo municipio, incluido su pasado.

El propio Plazido Muxika puso el siguiente ejemplo como explicación de los términos civilmente y eclesiásticamente: "por ley (...) yo soy de Urnieta, por iglesia soy de Lasarte".

Infancia y primera juventud (1906-1922)

Su padre Antonio, era de Goierri, nacido en el caserío Zabale de Ordizia. Su madre Dominika era de Astigarraga, hija del caserío Oiarbide. Una vez casados se trasladaron a vivir a Oria, en las casas situadas frente a la empresa Brunet, puesto que Antonio trabajaba en casa de los Brunet como encargado de la huerta. Vivían en la casa situada junto a la pequeña iglesia de Oria. La casa se llamaba Baratzalde, si bien era más conocida por el nombre de Etxegorri.

Tuvieron cinco hijos —dos más murieron al poco de nacer. Los tres mayores niños, y luego gemelos —niño y niña. Plazido era el niño mellizo; su hermana Engracia fue también monja.

La infancia de Plazido fue agitada por motivos de salud. Estuvo un tiempo en el caserío Zabale de Ordizia con su abuela; volvió a Oria al hogar familiar, y a la edad de diez años, la familia Muxika se mudó a Altxa. Se trasladaron de la casa Etxegorri ("casa roja") de Oria a la casa Etxe-uridin ("casa azul") de Altxa.

En Altxa estuvo estudiando hasta los trece años. Cuando llegó el momento de terminar el colegio, sus padres lo enviaron al Seminario de Andoaín. En 1922, siendo un joven de 16 años, tras unos ejercicios espirituales de una semana de duración en Azpeitia, decidió entrar en la orden jesuita.



Jesuita gazte, euskaltzaletu (1922-1929)

Gogo-jardunak amaitu eta handik hilabetera sartu zen Loiolan. Uztailaren 24an, Santiago bezperan, egin zen nobizio. Ondoko urteak erlijioso prestakuntzari eta zegozkion ikasketei bete-betean emana igaro zituen Plazido gazteak: Loiolan eta Burgosko Oñan. Etxe horietan bazen euskararen aldeko giroa. Han edoski zuen Plazido Muxikak – eta berdin haren garaituan Lagundian sartu ziren Ibiñagabeitia, Zaitegi, Lauaxeta eta beste gazte askok – euskaltzaletasuna. Lehendik ere euskaldunak ziren gehienak, jakina, euskal hiztunak alegia, baina modu naturalean bizi zuten gurasoengandik ikasitako hizkuntza, hura landu gabe eta, beharbada, haren kontzientzia handirik ere izan gabe, Ibiñagabeitia izan ezik. Han esnatu ziren, han gaitu eta prestatu, gero bizitzan zehar ondu zituzten euskal lanak burutzeko. Ohiko zereginei albotik erantsitako zerbait zen, noski, euskararen aldeko giro hura, euskarazko predikuei begira-edo nolabait onartua eta ez guztiz nobizioen bizimoduan txertatua. Hiztegiaren hitzaurrean berak kontatuta dakigu, esate baterako, Plazido Muxikak hitz-zerrendak bidali zizkiola Azkueri Bilbora, 1926an, honek esku artean omen zuen gaztelania-euskara hiztegiaren kontuan izan zitzaizkion.

Herritik urrun, Ameriketara (1929-1932)

Filosofia-ikasketak amaituta, Euskal Herritik urrunera egin zuen pausua aita Muxika gazteak, Andima Ibiñagabeitia eta beste zenbait lagunekin batera. Kolonbiara joan zen, jesuitek egin ohi zuten hiru urteko "maisualdia" han betetzera, Ekuadorko mugatik hurbil dagoen Pasto hirira, mutilen ikastetxe batean irakasle. Hiru kontu aipa daitezke, urte haietako oroitzapenen oihala osatzen zuten harrietatik tiraka.

Lehenbizikoak Santa Cruz apaizaren izena darama. Izan ere, hurbiltasun handia sentitu zuen aita Muxikak gerrillari famatu izandako apaizarekiko. Ez zuen bizirik ezagutu, 1926an hila baitzen hura, baina biak urruti haietan eta ikastetxe berean irakasle aritu izanak hurbiltasun-sentipen berezia eman zion jesuita gazteari.

Santa Cruz apaizak borroka behin betiko utzi zituenean, gogo-jardun luze eta sakonak egin ondoren, apaiz-bizimodu eta lanetara itzultzea erabaki zuen eta jesuitekin bizitzan jarri zen. Hamabost urte egin zituen aurrena Jamaikan eta beste hogeita hamabost bat Kolonbiako

Un joven jesuita vascófilo (1922-1929)

Al mes de terminar los ejercicios espirituales ingresó en Loiola. Se hizo novicio el 24 de julio, víspera de Santiago. Los años posteriores los dedicó el joven Plazido plenamente a los estudios de preparación religiosa, tanto en Loiola como en Oña (Burgos). En esas casas se respiraba un ambiente vascófilo. Allí fue donde profundizó en su afición al euskera –igual que otros tantos jóvenes que como él ingresaron en la Compañía en aquella época, como Ibiñagabeitia, Zaitegi, Lauaxeta y más. La mayoría ya eran vascoparlantes, pero vivían de modo natural el idioma transmitido por sus padres, lo utilizaban sin elaborarlo y, quizá, sin ser conscientes de ello, salvo en el caso de Ibiñagabeitia. Allí fue donde despertaron, se capacitaron y se prepararon para llevar a cabo los trabajos en pro del euskera que más tarde maduraron. Aquel ambiente favorable al euskera era, por supuesto, algo añadido a las labores cotidianas, algo aceptado como ayuda al predicamento en euskera y algo no completamente incorporado en el modo de vida de los novicios. El propio Plazido Muxika nos cuenta en el prólogo del diccionario que en 1926 envió a Azkue unos glosarios, para que los tuviera en cuenta en el diccionario castellano-euskera que por lo visto estaba elaborando.

Lejos de su pueblo, en América (1929-1932)

Tras finalizar los estudios de filosofía, el joven padre Muxika se alejó del País Vasco, junto con Andima Ibiñagabeitia y otros amigos. Recaló en Colombia, al objeto de cumplir los tres años de "magisterio" habituales entre los jesuitas. El lugar se hallaba cerca de la ciudad de Pasto, en la frontera con Ecuador. Tirando del hilo de la memoria de aquellos años, son reseñables tres cuestiones.

La primera lleva el nombre del cura Santa Cruz. Ciertamente, el padre Muxika se sintió muchas veces muy unido a este famoso cura-guerrillero. No lo conoció en vida ya que aquel murió en 1926, pero el hecho de que ambos hubieran trabajado en aquellas tierras lejanas y en la misma escuela hizo sentir al joven jesuita un especial sentimiento de cercanía.

Cuando el cura Santa Cruz hubo abandonado las armas definitivamente, tras largos y profundos ejercicios espirituales, decidió volver a retomar la vida y la labor religiosa de cura y se instaló con los jesuitas. Residió durante quince años en Jamaica y durante otros treinta y cinco en Pasto,



Paston, jesuiten ikastetxeetan irakasle. Frantses eta ingeles irakasle zen. Jesuitekin bizi bazen ere, 1922 urtea arte ez zioten jesuita izateko baimena eman. Hil baino lau urte lehenago egin zen, bada, jesuita, laurogeita sei urte zituela.

Paston zegoela herri bat ere sortu zuen Santa Kruz apaizak mendi aldean, hiritik kilometro batzuetara, eta San Ignacio izena ipini zion. Larunbatero joaten omen zen hara eta turuta hotsez deitzen omen zien inguruko indioei herrira bil zitezen. Espainian, berriz, erabat ahaztuta zuten "apaiz beldurgarri" hura. Horregatik, artean bizi zela eta apaiz gisa ari zela jakin zuenean, harritu egin omen zen Alfonso XIII.a erregea. Zilarrezko turuta bat bidali zion opari, bere lanean lagungarri izan zezan. Turuta bidean zela, ordea, hil egin zen Santa Kruz eta hura zeraman jesuitak Tenerifén utzi zuen, bestela ere aski beteak baitzeramatzan maletak. Pastoko jesuitak, berriz, ez omen ziren pozik eta turuta eskatu zuten, beren ikastetxerako baitzen hura. Aita Muxikari egokitu zitzaion zorioneko turuta hori Tenerifén hartu eta Ameriketara eramatea.

Bestalde, berriz, Santa Kruz apaiz zaharrari jesuita sartu zenean eman zioten gurutzearen jabe egin zen aita Muxika Kolonbian eta ez zuen bere denbora guztian galdu. Hura bular gainean zuela eman zuen azken arnasa ere. Bigarren kontuak ere badu Santa Kruz apaizarekin zerikusia. Atarikoan esan dut Kolonbian hartu zuela aita Muxikak hiztegi handia egiteko asmo sendoa. Erabaki hura eragin zuten Argia aldizkariko orriak, hain zuzen ere, Santa Kruz apaizak utziak ziren, itxura denez. Aldizkari horren ale bi hartzen omen zituen hark, bat Donostiatik eta bestea Bilbotik bidaliak. Ogitarteko bat bilduz eramango zituen beharbada mendira eta hantxe utzi.

Hirugarren kontua ere aita Muxikaren zaletasunen lekuko argia da. Kolonbiako urte haietan itzuli zuen alemanetik euskarara Nonni und Manni eleberritxoa, bestelako lanek uzten zizkieten tarte libreak baliatuz. Gaztetan piztutako euskal asmo-gogoak bizirik gordetzen zituela erakusten du horrek. Ez zituela itzaltzen utzi.

Colombia, de maestro en el colegio de los jesuitas. Era profesor de francés y de inglés. Aunque vivía con los jesuitas, hasta 1922 no le permitieron ordenarse. Por tanto, se ordenó jesuita a la edad de ochenta y seis años, cuatro años antes de fallecer.

Estando en Pasto, el cura Santa Cruz fundó una villa en la zona de montaña, a unos kilómetros de la ciudad, y le puso el nombre de San Ignacio. Por lo visto acudía allí todos los sábados y convocaba con una trompeta a los indios de los alrededores para que se reunieran en el pueblo. En España, sin embargo, ya habían olvidado a aquel "temible cura". Por eso, cuando el rey Alfonso XIII supo que aún vivía y que ejercía como cura, se extrañó muchísimo. Le envió como regalo una trompeta de plata, para que le fuera de ayuda en su labor. Sin embargo, Santa Cruz murió cuando la trompeta iba de camino, y el jesuita que la portaba la dejó en Tenerife, para aligerar sus maletas. Los jesuitas de Pasto, en cambio, no quedaron satisfechos y reclamaron la trompeta, ya que era para su colegio. La suerte quiso que fuera el padre Muxika el elegido para transportar aquella dichosa trompeta desde Tenerife hasta América.

Por otro lado, el padre Muxika se apropió de la cruz que le regalaron al viejo cura Santa Cruz cuando ingresó como jesuita, y no la perdió en ningún momento de su vida. La cruz se hallaba sobre su pecho cuando dio su último suspiro.

La segunda cuestión tiene que ver también con Santa Cruz. Como hemos dicho al principio, fue en Colombia donde determinó el padre Muxika la firme decisión de elaborar el voluminoso diccionario. Por lo que parece, las hojas que motivaron aquella decisión habían sido dejadas por el cura Santa Cruz. Éste recibía dos ejemplares de dicha revista, uno enviado desde San Sebastián y el otro desde Bilbao. Seguramente los llevaría al monte como envoltorio de un bocadillo y los dejó allí.

La tercera cuestión también es un claro testimonio de las aficiones del padre Muxika. Durante su estancia en Colombia tradujo del alemán al euskera la novela Nonni und Manni, aprovechando los huecos libres que le dejaban sus quehaceres. Eso nos indica que conservaba viva la afición al euskera surgida o destacada en su juventud. No había dejado que se apagara esa afición.



Eta Europan (1932-1937)

Kolonbiako hiru urteak beteta Europa aldera jo behar izan zuen aita Muxikak.

Belgikako Marneffe-n (1932-34) eta Herbehereetako Valkenburg-en (1934-36) egin zituen Teologiako lau urteak. Gero, apaiztuta, urtebete pasatu zuen Belgikan ostera ere, Tronchiennes-en, "Hirugarren Probatza" egiten, urte batzuk geroago Lagundiko Generala izango zen aita Janssens-en gidaritzapean.

Lan isilean betetako bizitza emankorra (1937-1982)

1937a eta 1963a bitartean hainbat lekutan ibili zen jesuiten buruen esanetara: Xabierren (latineko hiztegia prestatu zuen), Loiolan (bi aldiz), Deustun, Oñan, Zaragozako Veruelan eta Loiolan, eta hemen eman zituen bere bizitzaren azken hemeretzi urteak.

Hala ere, gogoan zuen beti aita Muxikak hiztegia eta harekin hasteko zegoen beti. Lehenbiziko urte haietan, ordea, bestelako lanek mendean hartuta ibili zen. 1944an, Oñan zela, fitxak idazten hasi zen, eta gainerako lekuetan ere libre zuen denboran, eta etenaldiak ugariak zirelarik – behin urtebete osoan egon omen zen hiztegi-ko lana ukitu ere egin gabe –, fitxak prestatzen jarraitu zuen. Egoera horrek ez zuen, hala ere, luze iraun; 1958an beste zeregine-tatik libre utzi zuten behingoz agintariek –gazteei eman beharreko eskoletatik izan ezik, noski–, hiztegi-lanei modu beteagoan ekin ziezaien. Eta azkenean, 1965ean, argitaratu eman zuen hainbeste urtetan amestutako lan erraldoia. Urte berezia izan zen hura aita Muxikarentzat. Pozik zen gizona, jakina. Hiztegia ondo hasi zen saltzen, gainera, Hegoaldeko bazter guztietara zabalduz.

Handik gutxira, 1968an, batasunerako bilera ospetsua egin zuen Euskaltzaindiak Arantzazun eta han ezagunak diren erabakiak hartu. Denak ez zetozen bat Hegoaldeko idazleen ohiturekin eta aita Muxikak segitutatako idazpide-arekin. Batzuk ez zitzaizkion egokiak iruditu eta garbi adierazi zuen hori.

Lanean jarraitu zuen, bada, lasai eta kementsu, ondoko urteetan ere, hiztegi lodiaren segidako lan batzuk bururatu: edizio berri laburtua prestatu, hiztegia irauli eta euskara-gaztelania bertsioa egin... Horrenbestez, gorabeherak gorabehera, gaztetan amesturiko lan erraldoia gauzatu ikusteak ematen zion poz-atsegina gozatuz igaro zi-

Y en Europa (1932-1937)

Cumplido el periodo de tres años en Colombia, el padre Muxika tuvo que volver a Europa.

Los cuatro años de Teología los hizo en Marneffe, Bélgica (1932-34) y en Valkenburg, Holanda (1934-36). Luego, una vez ordenado cura, pasó otro año en Bélgica, en Tronchiennes, realizando la "Tercera Probatza", bajo la dirección del padre Janssens, quien más tarde fue General de la Compañía.

Una vida productiva, trabajando en silencio (1937-1982)

Entre 1937 y 1963 pasó por distintos sitios siempre bajo las órdenes de los superiores jesuitas: en Xabier (elaboró un diccionario de latín), en Loiola (dos veces), en Deusto, en Oña (Burgos), en Veruela (Zaragoza) y los últimos diecinueve años en Loiola.

Sin embargo, el padre Muxika constantemente tenía en mente el diccionario y siempre estaba pendiente de empezar. En aquellos primeros años, sin embargo, se vio superado por sus otras labores. En 1944, estando en Oña, comenzó a escribir las fichas, y en el resto de lugares en su tiempo libre, y con abundantes pausas –una vez por lo visto estuvo un año entero sin avanzar nada en el diccionario–, continuó preparando las fichas. Esa situación, sin embargo, no duró mucho; por fin en 1958 sus superiores lo liberaron de sus otros quehaceres –a excepción de las clases a los jóvenes, por supuesto–, para que se dedicara de lleno a la elaboración del diccionario. Y finalmente, en 1965, publicó el tan ansiado fruto del exhaustivo trabajo realizado durante largos años. Aquel fue un año especial para el padre Muxika. Por supuesto que estaba contento. Además, el diccionario empezó vendiéndose muy bien, distribuyéndose a todas las esquinas del sur del País Vasco.

En 1968, Euskaltzaindia (la Academia de la Lengua Vasca) celebró una famosa reunión en Arantzazu y adoptó una serie de decisiones sobradamente conocidas. No todas coincidían con las costumbres de los escritores del sur y con las normas de escritura seguidas por el padre Muxika. Algunas decisiones no le parecieron adecuadas y así lo manifestó.

Continuó trabajando los siguientes años, con tranquilidad y con vigor, llevando a cabo algunos trabajos continuadores del grueso diccionario: preparó una nueva edi-



tuen bizitzaren azken urteak.

1982ko abuztuaren 27an hil zen, isilik eta bakean, bihotzaren zolan lan eginarene poza sentituz eta bular gainean Santa Kruz apaizak erabilitako gurutzeta zuela.

Lanak

Behin eta berriro esan dugun bezala, 1965eko *Diccionario castellano-vasco* hiztegi mardula izan zen Plazido Muxikaren lanik handiena. Huraxe izan zen haren emaitza nagusia. Ez bakarra, ordea, beste lan batzuk ere egin eta argitaratu baitzituen.

1940an *Diccionario latino-español y español-latino* izenekoa argitaratu zuen.

1941ean, berriz, hurrengo urtean argitaratuko zen *Diccionario griego-español*-erako lanetan parte hartu zuen.

1951n *Noni eta Mani* eleberrri laburra eman zuen argitarara, alemanetik itzulia.

1965ean, esan bezala, *Diccionario castellano-vasco* handia argitaratu zuen.

1968an *Mendiko argia* eleberrria argitaratu zuen, alemanetik itzulia hau ere. 1968 urtean berean *El verbo auxiliar guipuzcoano* argitaratu zuen, bi taula-orri bilgarrietan.

1969an *Afijos vascos* izeneko liburuxka argitaratu zuen, hiztegian gehigarri gisa ematen zuen atzizkien zerrenda emendatuta emanez.

Azkenik, 1981ean bere hiztegi handiko fitxak irauliz *Diccionario vasco-castellano* izenekoa argitaratu zuen liburuki bitan.

Hortik landa, artikulua ere idatzi zituen Jesusen Biotzaren Deya, Argia, RIEV, Yakintza eta beste zenbait aldizkaritan. "Txurdiñ" izenordea erabili zuen maiz –Altzan bizi izan zeneko etxearen izena gogoratuz-edo– eta baita "Intzinda" eta "Minoski" ere inoiz.

Hiztegia

Hiztegietan, batez ere lehenak izan zuen arrakasta handia –gaztelaniatik euskararakoak, alegia–.

Hiztegi horren lehen ezaugarria erdaratik euskarara izatea da, lehena izan baitzen.

Bigarren ezaugarria erabilgarritasuna zen. Informazioa ohiko erabiltzaileentzat baliagarria izango zenera mugatu zuen.

ción resumida, volcó el diccionario e hizo la versión euskera-castellano... Con todo, y con los altibajos sufridos a lo largo de los años, vivió los últimos años de su vida disfrutando de la satisfacción y de la alegría que le provocaba la visión del fruto de largos años de trabajo.

Falleció el 27 de agosto de 1982, en silencio y en paz, con la satisfacción del deber cumplido y con la cruz utilizada por el cura Santa Cruz encima de su pecho.

Obra

Como ya hemos repetido una y otra vez, el mayor trabajo de Plazido Muxika fue el voluminoso *Diccionario castellano-vasco*. Aquella fue su principal producción. Pero no la única, puesto que también realizó y publicó otros trabajos.

En 1940 publicó el *Diccionario latino-español y español-latino*.

En 1941 participó en la elaboración del *Diccionario griego-español* que se publicaría un año más tarde.

En 1951 publicó la novela breve *Noni eta Mani*, traducida del alemán.

En 1965, como ya hemos indicado, publicó el voluminoso *Diccionario castellano-vasco*.

En 1968 publicó la novela *Mendiko argia*, también traducida del alemán. El mismo año publicó *El verbo auxiliar guipuzcoano*, en dos tablas-hojas enrollables.

En 1969 publicó el librito titulado *Afijos vascos*, ampliando la relación de afijos incluida como anexo en el diccionario.

Finalmente, volcando las fichas de su voluminoso diccionario, publicó el *Diccionario vasco-castellano* en dos tomos.

Además, también publicó una serie de artículos en Jesusen Biotzaren Deya, Argia, RIEV, Yakintza y en otras publicaciones y revistas. A menudo utilizó el seudónimo de "Txurdiñ" –rememorando quizá el nombre de la casa donde vivió en Altza-, y en ocasiones también los de "Intzinda" y "Minoski".

El diccionario

Entre sus diccionarios fue el primero el que mayor éxito tuvo indudablemente, el de castellano-vasco.

La primera característica del mismo es que es un diccionario del castellano al vasco, y fue el primero.



Erabilitako iturriek ere lagundu zioten horretan. Ordu arteko hiztegi guztiak, (Azkuerena, Lhanderena eta beste), Euskaltzaindiak utzitako Azkueren hitz zerrendak eta beste zerrenda ugari, itzulpen nagusi guztiak – Kempis-en bost itzulpen barne–, Orixeren itzulpenak, aldizkarietako artikulua eta beste lan asko erabili zituen. Honela dio Mitxelena: "(...) la obra del padre Múgica merece en conjunto un elogio incondicional por la riqueza casi exhaustiva de su documentación. (Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco, MUGICA BERRONDO, Plácido sarreran)". Aipagarri da, azkenik, hitzen aukeran Plazido Muxikak erakutsi zuen oreka. Garbizalea zen, hori bai, eta, ahal zela, euskal jatorriko hitza hobesten zuen: hexaedro esateko sei-aldeko hobetsi zuen, konparazio batera, euskaldunek hobeto ulertuko dutelakoan. Baina, bestalde, garbizale izanik ere, ez zitzaion iruditzen beharrezko ez bidezko atlas, fisika, mistika, organo eta horrelakoak "euskaratzen" ari zela.

Hona, berriro, Mitxelenaren hitzak hiztegia gorai patuz: "(...) por el buen sentido con que se han sabido salvar incontables dificultades y por la misma moderación de que da prueba en todo momento. (Ibid.)".

Eta orain?

Eta orain, zer?, galde dezake beharbada baten batek. Zertan geratu da gaur egun hiztegi handi haren emaitza? Izan ere, orduetik hona asko aurreratu dugu euskal hiztegi gintzan.

Horrela da, bai, gaur egun hiztegi asko ditugu eta mota askotakoak. Gero eta lexiko-tresna hobeak ditugu euskara lanbide dugunok. Plazido Muxikarena ere hor dago, ordea, besteen artean, bere aberastasuna eta ezaugarri jakinak dituela.

Eta hor egongo da beti, euskaltzaleen gogoan eta eskuetan, leku propioa irabazia baitu euskal lexicografiaren historian.

La segunda característica era su utilidad. El autor se limitó a aportar únicamente la información válida para el usuario habitual.

Las fuentes utilizadas también le ayudaron en esa labor. Utilizó todos los diccionarios que había hasta la época (el de Azkue, el de Lhande y otros), los glosarios de Azkue prestados por Euskaltzaindia y más glosarios, todas las traducciones principales –incluidas cinco traducciones de Kempis–, las traducciones de Orixe, artículos de revistas y muchos más trabajos. Así dice Mitxelena: "(...) la obra del padre Múgica merece en conjunto un elogio incondicional por la riqueza casi exhaustiva de su documentación (Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco, MUGICA BERRONDO, Plácido)".

Finalmente es reseñable el equilibrio demostrado por Plazido Muxika al seleccionar los términos. Era purista, eso sí, y en la medida de lo posible, prefería las palabras de origen vasco: por ejemplo, prefirió el término sei-aldeko ("de seis caras") como equivalente de hexaedro, pensando que los vascoparlantes lo entenderían mejor. Pero por otra parte, aun siendo purista, no le parecía necesario traducir palabras como atlas, física, mística, organo y otras muchas parecidas.

Hé aquí de nuevo una cita de Mitxelena ensalzando el diccionario: "(...) por el buen sentido con que se han sabido salvar incontables dificultades y por la misma moderación de que da prueba en todo momento. (Ibid.)".

Y, ¿ahora?

Y ahora, ¿qué?, puede preguntar más de uno. ¿En qué ha quedado hoy día el resultado de aquel gran diccionario? Porque desde entonces hasta hoy hemos avanzado mucho en la lexicografía vasca.

Es verdad, sí, hoy día tenemos muchos diccionarios y de muchas clases. Los que trabajamos con el euskera diariamente disponemos cada vez de mejores herramientas. No obstante, el diccionario de Plazido Muxika sigue estando ahí, entre los demás, y son de sobra conocidas su riqueza y sus características distintivas.

Y seguirá estando ahí siempre, en la memoria y en las manos de los vascófilos, pues conserva un espacio propio ganado a pulso en la historia de la lexicografía vasca.



Ospakizunetako egitaraua

Martxoak 30, osteguna

11:30etan, Urnietako udaletxean mendeurrenaren inguruan antolaturiko ekitaldien aurkezpenarako prentsaurrekoa. Plazido Muxikak idatzitako *Noni eta Mani* eta *Mendiko argia* liburuen bildumaren aurkezpena.

Apirilak 3tik 12ra

Lekaio kultur etxean, Plazido Muxikaren inguruan prestatutako erakusketa. Astegunean 17:00etatik 20:00etara eta asteburuan 12:00etatik 14:00etara egongo da zabalik.

Apirilak 16, igandea

Plazido Muxikaren omenezko Meza nagusia, 11:00etan San Migel parrokian. Amaitutakoan, Erketz eta Aurrera Gure Ametsa dantza taldeko kideekin kalejira bat abiatuko da Plazido Muxika plazarantz. Bi talde horietako dantzariak, Oriako Sorgin dantza eskainiko dute.

12:00etan Plazido Muxikaren omenez egindako bustoaren inaugurazio ekitaldia.

Apirilak 27, osteguna

Euskaltzaindia erakundearen laneko bilera Urnietako udaletxekeo batzar aretoan egingo da.

18:30ean, Lekaio kultur etxean, Euskaltzaindiak Plazido Muxikaren inguruan antolaturiko hitzaldia.

Hizlariak: Joxe Antonio Muxika (Plazidoren iloba) eta Ibon Sarasola (Euskaltzaina, Euskaltzaindiako hiztegi gintza ataleko burua).

Programa de eventos

30 de marzo, jueves

A las 11:30 en el Ayuntamiento de Urnieta, presentación en rueda de prensa de los actos de celebración del centenario. Presentación de la edición renovada de los libros de Plazido Muxika *Noni eta Mani* y *Mendiko argia*.

Del 3 al 12 de abril

Exposición sobre Plazido Muxika en la casa de cultura Lekaio. Horario de apertura: de 17:00 a 20:00 de lunes a viernes y de 12:00 a 14:00 el fin de semana.

16 de abril, domingo

Misa mayor en honor a Plazido Muxika, a las 11:00 en la parroquia San Miguel. A continuación, kalejira hacia la plaza Plazido Muxika, junto a los grupos de baile Erketz y Aurrera Gure Ametsa. Los dantzaris bailarían la Sorgin dantza de Oria.

A las 12:00, acto de presentación del busto en honor a Plazido Muxika.

27 de abril, jueves

Euskaltzaindia celebrará una reunión de trabajo en el salón de actos del ayuntamiento de Urnieta.

Conferencia de Euskaltzaindia en torno a Plazido Muxika, a las 18:30 en la casa de cultura Lekaio.

Ponentes: Joxe Antonio Muxika (sobrino de Plazido) e Ibon Sarasola (Académico, Director del área de lexicografía de Euskaltzaindia).

Urnietak, 2006

1906-2006



Urnieta Udala
Ayuntamiento de Urnieta

